KISTE SAKROA
INTERBENTZIO-ONDOKO ZAINKETAK ETA GOMENDIOAK

EGUNEKO OSPITALE MEDIKO-KIRURGIKOA

Kiste sakrotik interbenitu zaituzte; behar bezala suspertzeko, bete aholku hauek:

- Afaldu arin (salda, natillak, flana, jogurta...).
- Biharko gosaritik aurrera, dieta biguna egin behar duzu, zuntz askokoa (fruituak, barazkiak, lekaleak...), eta likido asko edan behar duzu, idorreriarik ez izateko.
- Saiatu lehen egunean jarrera askorik ez aldatzen ohean.
- Bigarren egunetik, zauri kirurgikoa garbitu ahalko duzu.
- Bigarren egunetik, nahi duzun jarreran egin ahalko duzu lo; ez hartu jarrerak behartuak.
- Hartu gorputzeko tenperatura arratsalde-gauetan, hurrengo egunetan.

BALDIN ETA:

- Min handia baduzu eta agindutako analgesikoekin arintzen ez bada.
- Gorakoa maiz izaten baduzu.
- 38º edo gehiagoko sukarra baduzu.
- Zauritik odola badarizu.

Joan zaitez *LEHEN MAILAKO ARRETARAKO medikuarengana;* edo

astelehenetik ostiralera, 20:00etatik 08:00etara, eta larunbatetan eta jaiegunetan, eguneko 24 orduetan,

LARRIALDIETAKO ZERBITZURA

Gehiago jakin nahi baduzu, ez egon dudatan, eta galdetu atenditzen zaituzten profesionalei.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD